



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2013ko maiatzaren 31

58. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

- Foru Legea, konpromiso sozialeko proiektuei aplikatzekoak zaizkien pizgarri fiskalak arautzen dituen. Osoko Bilkurak onetsia (3. or.).
- Foru Lege proiektua, Nafarroako Foru Komunitateko Toki Administrazioa berrantolatzekoa. Osoko Bilkurak bazter utzi ditu osoko zuzenketak (6. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Legea, Nafarroako Administrazio Publikoetan funtzionarizazio prozesu berri bat abian jartzeari buruzkoa. Osoko Bilkurak onetsia (7. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitatearen lurraldean debekatzen duena haustura hidraulikoaren teknika erabiltzea gas ez-konbentzionala ikertzeko eta erauzteko teknika gisa. Osoko Bilkurak aintzat hartua (9. or.).
- Foru Lege proposamena, uztailearen 6ko 9/2005 Foru Legea, Taxiari buruzkoa, aldatzen duena. Osoko Bilkurak aintzat hartua (9. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroako Ehizari eta Arrantzari buruzko abenduaren 22ko 17/2005 Foru Legea aldatzen duena. Osoko Bilkurak aintzat hartua (10. or.).
- Foru Lege proposamena, Gizarteratze Errenta arautzen duen urtarrilaren 23ko 1/2012 Foru Legea aldatzen duena. Osoko Bilkurak aintzat hartua (10. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua gaitzesten da bere lege-betebeharrak ez dituelako bete Nafarroan Nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiatzegei lotutako produktuen salmenta zuzena arautzen duen apirilaren 20ko 8/2010 Foru Legearen erregelamenduzko garapenari dagokionez, eta erregelamendu hori onetsi dezan premiatzen da. Osoko Bilkurak onetsia (11. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da mapa bat sor dezan, sektore ekonomiko eta industrialen araberrako patente-sorkuntzaren egoera islatzen duena. Osoko Bilkurak onetsia (11. or.).

- Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da lehenbailehen jar ditzan Iruña I (Nafarroa) Espetxeak beharrezkoak dituen giza baliabideak eta baliabide materialak, espetxe horrek behar bezala funtziona dezan. Osoko Bilkurak onetsia (12. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lurrikaragatiko larrialdi-simulakroak egin ditzan ikastetxeetan. Osoko Bilkurak onetsia (13. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hilabeteko epean bete dezan Irisgarritasun Unibertsalari eta Ororentzako Diseinuari buruzko apirilaren 6ko 5/2010 Foru Legearen xedapenetan ezarritakoa. Osoko Bilkurak onetsia (13. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hezkuntza-premia eta hirigintza-garapen berrietara egokitutako eskolatzeko politikak eta hezkuntza-dotazioak abian jar ditzan eta hezkuntzaren kalitatea ziurta dezan. Osoko Bilkurak onetsia (14. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da negoziazio prozesu bat has dezan Nafarroako Administrazio Publikoen Negoziazio Mahai Orokorreko sindikatuekin, sektore publikoko langileei ordaintze aldera 2012ko abenduan beren nominetatik kendutako lansari-zatia. Mozioa erretiratzea (14. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, jakitekoa Nafarroako Gobernuak ba ote duen aurreikusita ekintzaren bat Lekunberriko zabortegi zaharraren inguruan euriteek eragindako kaltea arintzeko. Bertan behera utzitako galdera (15. or.).
- Galdera, Nafarroako Zirkuitura jende gehiago joan dadin sustatzeko neurriei buruzkoa. Galdera erretiratzea (15. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Legea, konpromiso sozialeko proiektuei aplikatzekoak zaizkien pizgarri fiskalak arautzen dituen.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2013ko maitzaren 23an egindako Osoko Bilkuran, konpromiso sozialeko proiektuei aplikatzekoak zaizkien pizgarri fiskalak arautzen dituen Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Legea, konpromiso sozialeko proiektuei aplikatzekoak zaizkien pizgarri fiskalak arautzen dituen

ZIOEN AZALPENEA

Foru lege honen helburua da laguntza fiskala ematea gizarte zerbitzuen, garapenerako lankidetzaren eta berdintasunaren arloan jarduerak gauzatzen dituzten proiektuei, betiere betetzen badiuzte ezarriko diren zenbait eskakizun, eraginkortasun, efizientzia eta gardentasunekoak, alegia. Horrez gain, proiektu horiek "konpromiso sozialeko proiektuaren" zigilua lortu beharko dute.

Proiektu horiek sustatzeko pizgarri fiskalerako Fundazioen eta Babes Jardueren Tributu Araubidea erregulatzen duen uztailaren 2ko indarreko 10/1996 Foru Legean ezarritako esparrua erabili da. Foru lege horren barruan, xedapen gehigarri berri bat txertatu da, egokiro bereizteko, batetik, "konpromiso sozialeko proiektuaren" zigilua lortzen duten proiektuetarako pizgarriak, eta, bestetik, legearen gainerako artikuluetan ematen diren gainerako pizgarri fiskalak. Araua argitzeaz gain, foru legearen xedea da pizgarri fiskala nabarmen hobetzea "konpromiso sozialeko proiektuaren" zigilua lortu duten proiektu horietarako.

Xedapen gehigarri horren 1. atalean ahalmena ematen zaio Nafarroako Gobernuak Gizarte Politiketako kontseilariari foru agindu bidez ezar ditzan

proiektu horiek bete beharko dituzten eraginkortasun-, efizientzia- eta gardentasun-baldintzak, bai eta "konpromiso sozialeko proiektuaren" zigilua lortzeko prozedura ere.

Horrela, laguntza guztia gizarte-entitateei bidertatu nahi zaie, eragin handiagoa izateko pertsona behartsuenen eta talde ahulenen garapenean, autonomian eta gizarteratzean. Lortu nahi dena da herritarrak mobilizatzea, konprometitu daitezen pertsona-talde horiekin eta gizarte-entitateekin, zenbait arlotan jarduten duten proiektuei lagunduz; zenbait arlo, nola baitira ezgaitasuna, mende-kotasuna, garapenerako lankidetzeta edo berdintasuna.

Gizarte Politiketako kontseilariaren foru aginduaren bidez egindako deialdian oinarrituta, departamentuko organo eskudunak "konpromiso sozialeko proiektuaren" zigilua lutzatuko die ezarritako baldintzak betetzen dituzten proiektuei, horretarako ebazpena onetsirik. Ebazpenean zehaztuko da, halaber, kasuan kasuko proiektua irabazimorik gabeko zein entitatek gauzatuko duten, bakarka nahiz beste batekin edo batzuekin elkarlanean.

Xedapen gehigarriaren 2. atalean ezartzen dira pertsona fisikoei emanen zaizkien onura fiskalak. Pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergaren kasuan, eskubidea izanen dute dohaintzan emandako zenbatekoen ehuneko 40 kuotatik kentzeko, baita konpromiso sozialeko proiektuak gauzatzen dituzten entitateekin izenpetutako lankidetzeta hitzarmenen ondorioz ordaindutako zenbatekoen portzentaje hori bera ere, proiektu horiek finantzatzeko erabiltzen badira.

3. atalean "konpromiso sozialeko proiektuaren" zigilua lortzen duten proiektu hauek diruz babes-ten duten pertsona juridikoentzako onura fiskalak jaso dira.

Sozietateen gaineko zergaren subjektu pasiboek bi onura fiskal izanen dituzte. Alde batetik, dohaintzan emandako zenbatekoak kengarriztat hartuko dira, baita konpromiso sozialeko proiektuak gauzatzen dituzten entitateekin izenpetutako lankidetzaz hitzarmenen ondorioz ordaindutako zenbatekoak ere, proiektu horiek finantzatzeko erabili badira. Horrekin batera, kuota likidoari zenbateko horien ehuneko 20ko kenkaria egiteko eskubidea izanen dute.

3. atal horretan araututako onura fiskalak ez zaizkie inola ere aplikatzekoak izanen pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren subjektu pasiboek. Horiei, jarduera ekonomikoak egin nahiz ez, 2. atala aplikatuko zaie.

4. atalean ezartzen da bateraezinak direla xedapen gehigarriko onura fiskalak eta 1/1996 Foru Legearen artikuluetan jaso diren gainerakoak. Onura fiskal hauek baldintza batzuk bete beharko dituzte. Halatan, xedapen gehigarri horren 5. atalean xedatzen da ekarpenen eta dohaintzen entitate onuradunek baldintza hauek bete beharko dituztela aurreko 2. eta 3. ataletan aurreikusitako onura fiskalak aplikatzeko:

a) Behar diren egiaztagiriek frogatu beharko dute ekarpenak eta dohaintzak egiazkoak direla, eta benetan erabili direla "konpromiso sozialeko proiektu" bat gauzatzeko.

b) Emandako egiaztagirien edukia jakinarazi beharko diote Zerga Administrazioari, tributuen gaineko arauetan ezarritako eredu eta epeekin.

Xedapen gehigarri berriak 2013ko urtarrilaren 1ean hasiko diren zergaldietan izanen ditu ondorioak.

Artikulu bakarra. Fundazioen eta Babes Jardueren Tributu-araubidea erregulatzen duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legeari hamargarren xedapen gehigarri gehitzea.

Fundazioen eta Babes Jardueren Tributu-araubidea erregulatzen duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legeari xedapen gehigarri bat gehitzen zaio, testu hau izanen duena:

«Hamargarren xedapen gehigarria. "Konpromiso sozialeko proiektuaren" zigilua lortzen duen proiektuei aplikatzekoak zaizkien pizgarri fiskalak.

1. Nafarroako Gobernuak Gizarte Politiketako Departamentuak "konpromiso sozialeko proiektuaren" zigilua eman ahal izanen die Nafarroako Foru Komunitatean antolatzen diren proiektuei, hain zuzen ere gizarte zerbitzuen, garapenerako lankidetzaren eta berdintasunaren arloko jarduerak gauzatzen dituzten proiektuei, baldin eta betetzen

badituzte ezarriko diren eraginkortasun-, efizientzia- eta gardentasun-baldintzak.

"Konpromiso sozialeko proiektuaren" zigilua ematen duen ebazpenean zehaztuko da irabazi-asmorik gabeko zein entitatek gauzatuko duen kasuan kasuko proiektua, bakarka nahiz beste batekin edo batzuekin elkarlanean. Entitate horiek egiaztatu beharko dute "konpromiso sozialeko proiektuaren" zigilua lortzen saiatzen den proiektutik independentea eta desberdina den jarduna dutela.

Urtero foru agindu bat bat onetsiko da non lehentasunezko jarduketako ildoak ezarriko baitira, gizarte-entitateen parte-hartzearekin zehaztuak; ildo horiek "konpromiso sozialeko proiektuaren" zigilua lor dezaketen gizarte-elkartasuneko programa eta proiektuetan gauzatuko dira.

Nafarroako Gobernuak Gizarte Politiketako kontseilariak foru agindu bidez zehaztuko ditu aipatutako baldintzak, eraginkortasun, efizientzia eta gardentasunekoak, bai eta "konpromiso sozialeko proiektuaren" zigilua lortzeko prozedura ere.

"Konpromiso sozialeko proiektuaren" zigilua lortzen duten proiektuak Nafarroako Parlamentuko Gizarte Politiketako Batzordeari igorri eta aurkeztuko zaizkio, onetsi eta hiru hilabeteko epean gehienez ere, azaltzeko zer ezaugarri jo diren erabakigarritzat kalifikazio hori emateko.

2. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren subjektu pasiboek eskubidea izanen dute dohaintzan emandako zenbatekoen ehuneko 40 kentzeko zergaren kuotari, kopuruak ezeztatzeko, garbiak eta soilak baldin badira, baita aurreko atalean aipatutako entitateekin izenpetutako lankidetzaz hitzarmenen ondorioz ordaindutako zenbatekoen portzentaia bera ere, proiektu horiek finantzatzeko erabili badira.

Kenkarien oinarria Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legearen 64. artikuluko 1. idatz-zatian aipatzen den mugaren ondorioetarako kontatuko da.

3. Sozietateen gaineko zergaren subjektu pasiboek diru-dohaintzak egiten badituzte, ezeztatzeko, garbiak eta soilak, edo, aurreko 1. idatz-zatian aipatzen diren lankidetzaz hitzarmenen ondorioz, diru-kopuruak eskudirutan ordaintzen badituzte aipatutako proiektuen finantzaketarako, honako onura fiskal hauek izanen dituzte:

a) Zerga-oinarria zehazteko, ordaindutako zenbatekoak kengarriztat hartuko dira.

b) Horrez gain, kuota likidoari zenbatekoaren ehuneko 20ko kenkaria egiteko eskubidea izanen dute.

Zerga-oinarriari kendu ahal zaion zenbatekoak ez ditu muga hauetako altuena gaindituko:

– Murrizketa hori eta, kasua bada, foru lege honen 37., 42. eta 47. artikuluek aipatzen dituztenak egin aurreko zerga-oinarriaren ehuneko 30.

– Negozio zifraren zenbateko garbiaren milako 3.

Bestetik, kuotaren kenkaria sozietateen gaineko zergari buruzko foru legearen 72. artikuluan 3., 6. eta 7. idatz-zatietan ezarritako araubidearen eta mugen arabera aplikatuko da.

Atal honetan araututako onura fiskalak ez zaizkie inola ere aplikatuko pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren subjektu pasiboiei.

4. Bateriaezina izanen da xedapen gehigarri honetan araututako onura fiskalak eta foru lege honetan ezarritako gainerakoak zenbateko berberetarako jasotzea.

5. Aurreko 2. eta 3. ataletan aurreikusitako onura fiskalak aplikatzeko, ekarpenen eta dohaintzen entitate onuradunek beharkizun hauek bete beharko dituzte:

a) Behar diren egiaztagiriekin frogatu beharko dute ekarpenak eta dohaintzak egiazkoak direla, eta benetan erabili direla “konpromiso sozialeko proiektu” bat gauzatzeko.

Nafarroako Gobernuak Gizarte Politiketako kontseilariak foru agindu bidez arautuko ditu enti-

tate onuradunek luzatu beharreko egiaztagiri horien edukia eta ezaugarriak.

b) Emandako egiaztagirien edukia jakinarazi beharko diote Zerga Administrazioari, tributuen gaineko arauetan ezarritako eredu eta epeekin.

6. “Konpromiso sozialeko proiektuaren” zigorluzko deialdirako urteko foru aginduan jasota egonen da zer prozedura aplikatuko den baldin eta ekarpenen onuradun izan diren entitateek gutxienez jotako funtsak ez jasotzeagatik ezin badi-tuzte proiektuak ekitaldi horretan abian jarri. Prozedura horrek ezarria izanen du zer mekanismo erabiliko den proiektua birformulatu eta hasierata, epea edo helburua aldatzeko, edota proiektua beste entitate batekin nahiz batzuekin batera gauzatzeko ezartzeko, horrela proiektua abian jar-tzeko aukera emateko; proiektua, edozein modutan, abian den ekitaldiko deialdian ezarritako lehentasunezko jarduketa-ildoei egokitu beharko zaie, eta kasuan kasuko organo kudeatzailearen onspena beharko du.

7. Gizarte Politiketako kontseilariak, urtero, ekainaren 30a baino lehenago, aurreko urteko emaitzei buruzko oroitidazki bat igorriko dio Nafarroako Parlamentuari, non jasoko baita, gutxienez, finantzaketa lortu duten proiektuen zerrenda, horien zenbatekoa eta onura fiskalen zenbatekoa, figura tributarioka eta kontzeptuka xehakaturik.

Azken xedapena. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra, baina 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera hasita-ko zergaldietan izanen ditu ondorioak.

Foru Lege proiektua, Nafarroako Foru Komunitateko Toki Administrazioa berrantolatzekoa.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZI DITU OSOKO ZUZENKETAK

Nafarroako Parlamentuak, 2013ko maiatzaren 23an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen bazter uztea atxiki gabeko Manu Ayerdi Olaizola eta Patxi Leuza García jaunek eta Aralar-Nafarroa Bai eta Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeek Nafarroako Foru Komunitateko Toki Administrazioa berrantolatzeko Foru Lege proiektuari aurkeztutako osoko zuzenketak.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 132.5 artikuluan ezarritakoarekin bat, aipatu proiektua Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administraziooko Batzordera igorri da.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Legea, Nafarroako Administrazio Publikoetan funtzionarizazio prozesu berri bat abian jartzeari buruzkoa.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2013ko maiatzaren 23an egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako Administrazio Publikoetan funtzionarizazio prozesu berri bat abian jartzeari buruzko Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Legea, Nafarroako Administrazio Publikoetan funtzionarizazio prozesu berri bat abian jartzeari buruzkoa

ZIOEN AZALPENA

Ekainaren 27ko 5/1990 Foru Legeak, ekainaren 23ko 9/1992 Foru Legeak, abenduaren 30eko 15/1993 Foru Legeak, uztailaren 2ko 11/1996 Foru Legeak eta otsailaren 14ko 4/2003 Foru Legeak Nafarroako Gobernuari eta Nafarroako toki entitateei ahalmena eman izan diete haien zerbitzuko langile-mota ezberdinek funtzionario-izaera eskuratzeko hautaepeak abian jartzeko.

"Funtzionarizazio-prozesu" deituriko horien ondorioz, Nafarroako administrazio publikoentzat zerbitzuak ematen ari ziren ehunka pertsonak funtzionario-izaera eskuratu ahal izan dute; horrenbestez, urrats handiak egin dira sektore publikoko langile guztien errealitatea berdintasun handiagokoa izan dadin.

Oraingoan, foru lege honen bitartez, asmoa da bidea irekitzea Nafarroako administrazio publikoetan diharduten lan-kontratudun finkoentzako funtzionarizazio-prozesu berri bati. Helburuak agerikoak dira, xedea baita administrazio publikoetan diharduten langile guztiek funtzionario-izaera bera izan dezaten eta, halatan, nahi izatekoa ez den

kontratazio-ereduen bitasun honi amaiera jartzeko urratsak egin daitezten; izan ere, bitasun horretatik eratoritzen da, baiki, entitate publiko berari zerbitzu berdinak ematen dizkioten langileei ezberdintasunezko tratamendua ematea. Horrela, eta langile finkoen kontratazio berriak funtzionariotzaren esparruan egitearen ildotik, berdintasun-printzipioaren ikuspegitik egokiena denez gero, kontua da atzerabegirada bat botatzea jadanik finkaturik dauden lan-araubideko kontratazioei, aipaturiko izaera hori eskura dezaten.

1. artikulua.

Baimena ematen zaio Nafarroako Gobernuari beste hautaepe bat ireki dezan, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko estatutupekoek eta lan-kontratudun finkoek funtzionario-izaera eskuratzekoa, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileendako neurriei buruzko otsailaren 14ko 4/2003 Foru Legeko 8. artikuluan ezarritako baldintza beretan.

2. artikulua.

Halaber, Nafarroako toki entitateek beste prozesu bati ekin ahalko diote, beren langileetatik lan-kontratudun finkoek funtzionario izaera eskura dezaten.

3. artikulua.

Jardunean, zerbitzu berezietan eta eszedentzia berezian dauden Nafarroako Toki Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen plantillako lan-kontratudun finkoek, lanpostu finkora sartu direnek Nafarroako Administrazio Publikoetan sartzeko Erregelamendua onesten duen ekainaren 5eko 113/1985 Foru Dekretuak ezarritako prozeduraren bidez, aukera izanen dute Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuan integartzeko, baldin eta hala erabakitzen badute toki entitateetako gobernu-organo eskudunek, erabaki bat hartuz, foru lege honek indarra hartzen duene-

tik bi hilabeteko epean, beren langileen integrazio-prozesua hastearren alde.

4. artikulua.

1. Aurreko artikulua aipatzen duen aukera hori ez dute izanen aldizkako lanpostuak edo lanaldi partzialekoak betetzen dituzten lan-kontratudun finkoek.

Orobat halako aukerarik gabekoak izanen dira finkoa ez den lanpostu bat eskuratu ondoren finko bihurtu diren langileak, funtzio publikoan sartzeko legalki ezarritako prozeduraren bidez.

5. artikulua.

1. Integrazio-eskabidea toki entitatearen buruari zuzendu beharko zaio, toki entitatearen erabakia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita bi hilabeteko epean.

2. Eskabideari erantsiko zaio mailari dagokien titulazioa, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bategina onetsi zuen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuko 12. eta 15. artikuluetan xedatuari jarraituz.

6. artikulua.

1. Toki entitateko idazkariak, interesdunen espediente pertsonalak eta haiek eskabideetan eta aurkezturiko titulazioan adierazitako datuak aztertu ondoren, legezketasun-txostena emanen du, eta ebazteko eskudun den organoari igorriko dio dokumentazioa, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunaren biharamunetik hasita hogeitun eguneko epean.

2. Toki entitateko organo eskudunak, dokumentazioa eta idazkariaren txostena ikusirik, integratioari buruz egoki den ebazpena emanen du, zeina Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko baita.

7. artikulua.

1. Funtzionario izaera eskuratzen duten langileek ordura arte aplikatu zaien gizarte aurreikuspen eta segurantzako sistema izaten segituko dute, eta ordura arte betetzen zuten lanpostuari atxikita jarraituko dute.

2. Langile horiei aplikatuko zaizkien ordainsariak izanen dira Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuan eta hori garatzen duten arauetan funtzionarioentzat ezartzen direnak.

8. artikulua.

1. Interesdunei zuzendutako aginduzko jakinarazpen indibidualizatua ezertan galarazi gabe,

argitaratzen den integratio-ebazpenak eranskin batean jaso beharko du integratzen diren langileen zerrenda, horrekin batera zehaztuta haiek betetzen duten lanpostua, haien maila, aitortuta duten antzintasuna eta dagokien funtzionario-gradua; horrez gain jaso beharko ditu, kasua bada, integratioa ukatzen zaien langileen zerrenda eta ukoren zergatia.

2. Halaber zehaztuko da integratioa bera zein egunetan gauzatu den. Justifikaturiko kausaren bat tarteko denean izan ezik, langile guztientzat berbera izanen da egun hori, eta 2013ko uztailaren 1a baino lehenagokoa.

3. Eskabidea erregelamenduzko epean barruan aurkeztuta edukitzeaz gain integratioa gertatzen den egunean kontratu-harremana etenik duten langileak integratuzat joko dira, ondorio guztietarako, beren lanpostuan jardutera itzultzen diren egunean.

9. artikulua.

Funtzionario-gradua esleitzeko, toki entitateek honako irizpide haiek aplikatuko dituzte:

1. 1983ko abenduaren 31n zazpi urte edo gehiagoko antzintasun aitortua zeukaten langileei gradu bat erantsiko zaie data horretara arte eman dako zazpi zerbitzu-urteko, 1. gradutik abiatuta.

2. 1983ko abenduaren 31ko gradu-antzintasunetik abiatuta, eta hurrengo zenbakian adierazitakoa ezertan galarazi gabe, gradu berean 8 urteko iraunaldia kontatuko da hurrengo gradura igotzeko.

3. 1991ko abenduaren 31ko gradu-antzintasunari dagokionez, 6 urte eta 7 hilabete igarotzearen ondoriozko igoera-sistema aplikatzen da.

10. artikulua.

Funtzionario-izaera eskuratzen ez duten lan-kontratudun finkoek jardunean ari diren lanpostu berari atxikita segituko dute.

Xedapen honetan ezartzen den prozeduraren bidez egiten den Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren aplikazioak ez du ezein kasutan ekarriko interesdunari maila altuagorik esleitzea lan-kontratudun finko gisa kasuko administrazioan sartzeko eskatu zitzaion titulazioa baino, salbu eta legez ezarritako prozeduretako baten bitartez mailaz igo denean.

Behar den titulazioa ez edukitzeagatik funtzionario-izaera eskuratu ezin duten lan-kontratudun finkoek izaera hori eskuratzea eskatu ahalko dute titulazio hori lortzen dutenean. Hautatzeko eskubideaz baliatzeko, titulazioa lortu eta biharamunetik hasita bi hilabeteko epea izanen dute.

Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitatearen lurraldean debekatzen duena haustura hidraulikoaren teknika erabiltzea gas ez-konbentzionala ikertzeko eta erauzteko teknika gisa.

OSOKO BILKURAK AINTZAT HARTUA

Legebiltzarrak, 2013ko maiatzaren 23an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aintzat hartzea Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu zuen Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitatearen lurraldean debekatzen duena haustura hidraulikoaren teknika erabiltzea gas ez-konbentzionala ikertzeko eta erauzteko

teknika gisa. Proposamen hori 2013ko apirilaren 9ko 37. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proposamena, uztailaren 6ko 9/2005 Foru Legea, Taxiari buruzkoa, aldatzen duena.

OSOKO BILKURAK AINTZAT HARTUA

Legebiltzarrak, 2013ko maiatzaren 23an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aintzat hartzea uztailaren 6ko 9/2005 Foru Legea, Taxiari buruzkoa, aldatzen duen Foru Lege proposamena. Proposamen hori Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu zuen, eta 2013ko apirilaren 9ko

37. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proposamena, Nafarroako Ehizari eta Arrantzari buruzko abenduaren 22ko 17/2005 Foru Legea aldatzen duena.

OSOKO BILKURAK AINTZAT HARTUA

Legebiltzarrak, 2013ko maiatzaren 23an egin-dako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aintzat hartzea Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeak aurkeztu zuen Foru Lege proposamena, Nafarroako Ehizari eta Arrantzari buruzko abenduaren 22ko

17/2005 Foru Legea aldatzen duena. Proposamen hori 2013ko apirilaren 15eko 39. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proposamena, Gizarteratze Errenta arautzen duen urtarrilaren 23ko 1/2012 Foru Legea aldatzen duena.

OSOKO BILKURAK AINTZAT HARTUA

Legebiltzarrak, 2013ko maiatzaren 23an egin-dako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aintzat hartzea Gizarteratze Errenta arautzen duen urtarrilaren 23ko 1/2012 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena. Proposamen hori Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu zuen, eta

2013ko apirilaren 23ko 42. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua gaitzesten da bere lege-betebeharrak ez dituelako bete Nafarroan Nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiatzeari lotutako produktuen salmenta zuzena arautzen duen apirilaren 20ko 8/2010 Foru Legearen erregelamenduzko garapenari dagokionez, eta erregelamendu hori onetsi dezan premiatzen da.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2013ko maiatzaren 23an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua gaitzesten da bere lege-betebeharrak ez dituelako bete Nafarroan Nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiatzeari lotutako produktuen salmenta zuzena arautzen duen apirilaren 20ko 8/2010 Foru Legearen erregelamenduzko garapenari dagokionez, eta erregelamendu hori onetsi dezan premiatzen da."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Honakoa du testua:

"1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren jokabidea gaitzesten du, ez duelako

bete legez dagokion betebeharra, Nafarroan nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiatzeari lotutako produktuen salmenta zuzena arautzen duen apirilaren 20ko 8/2010 Foru Legearen erregelamenduzko garapenari dagokionez.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du gehienez ere bi hilabeteko epean onetsi dezan erregelamenduzko garapen osoa, Nafarroan nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiatzeari lotutako produktuen salmenta zuzena arautzen duen apirilaren 20ko 8/2010 Foru Legea eraginkortasun osoz indarrean jartzeko."

Iruñean, 2013ko maiatzaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da mapa bat sor dezan, sektore ekonomiko eta industrialen arabeko patente-sorkuntzaren egoera islatzen duena.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2013ko maiatzaren 23an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da mapa bat sor dezan, sektore ekonomiko eta industrialen arabeko patente-sorkuntzaren egoera islatzen duena."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroa-

ko Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Honakoa du testua:

"1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du mapa bat sor dezan, sektore eta jardura ekonomikoen arabera islatu duena, dauden cluster-ak barne, egoera zertan den patenteen sorrerari dagokionez. Informazio hori baliogarri eta preziatua suertatzen ahal da

ikerkuntza-jarduerarako zein ekintzaileek aukera berriak aurki ditzaten.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du mapa horretan sar ditzan komunitatean kokaturiko unibertsitate eta zentro teknologikoak ere.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du Nafarroako IV. Plan Teknologiko

koko neurrien artean sar dezan mapa hori urtero egin eta eguneratzeko beharra.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du mapa hori ezagutaraz dezan bere web orriaren bidez”

Iruñean, 2013ko maiatzaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernu premiatzen da lehenbailehen jar ditzan Iruña I (Nafarroa) Espetxeak beharrezkoak dituen giza baliabideak eta baliabide materialak, espetxe horrek behar bezala funtziona dezan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2013ko maiatzaren 24an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernu premiatzen da lehenbailehen jar ditzan Iruña I (Nafarroa) Espetxeak beharrezkoak dituen giza baliabideak eta baliabide materialak, espetxe horrek behar bezala funtziona dezan”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

“Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernu premiatzen du ahal den azkarren jar ditzan Iruña I (Nafarroa) Espetxean beharrezkoak diren giza baliabideak eta baliabide materialak, espetxearen behar bezalako funtzionamendua ahalbidetzeko.

Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernu premiatzen du Gazteen Departamentua jar dezan, halako moduan non 21 urtetik beherako presoak gainerakoengandik bereizi ahalko baitira, haien birgizarteratzea erraztearren”

Iruñean, 2013ko maiatzaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lurrikaragatiko larrialdi-simulakroak egin ditzan ikastetxeetan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2013ko maiatzaren 24an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lurrikaragatiko larrialdi-simulakroak egin ditzan ikastetxeetan".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

"1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du lurrikara-larrialdien simulakroak egin ditzan ikastetxeetan.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du lurrikaragatiko simulakro hauek sar ditzan ikastetxeetako larrialdi-planetan, gutxienez bi urtez behin egin daitezten; xede horrekin, aldeztatik irakaslegoari gutxieneko prestakuntza emanen zaio, Nafarroako Larrialdietako Agentziarekin koordinaturik".

Iruñean, 2013ko maiatzaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hilabeteko epean bete dezan Irisgarritasun Unibertsalari eta Ororentzako Diseinuari buruzko apirilaren 6ko 5/2010 Foru Legearen xedapenetan ezarritakoa.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2013ko maiatzaren 24an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hilabeteko epean bete dezan Irisgarritasun Unibertsalari eta Ororentzako Diseinuari buruzko apirilaren 6ko 5/2010 Foru Legearen xedapenetan ezarritakoa".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

"1. Nafarroako Gobernua eta bere departamentu guztiak premiatzea osorik bete dezaten Irisgarritasun Unibertsalari eta Ororentzako Diseinuari buruzko apirilaren 6ko 5/2010 Foru Legea, legeak ezarritako autoebaluazio prozesuak azkartuz.

2. Nafarroako Gobernua premiatzea hiru hilabeteko epean jarduketa plan bat aurkez dezan Nafarroako Parlamentuan, beharrezkoak diren neurriak, egutegia eta diru-zenbatekoak ezarrita, irisgarritasun unibertsalerako eskubidearen eta herritar oroventzako diseinuaren arloan egun dau den gabeziak ahal den azkarren zuzentze aldera.

3. Nafarroako Gobernua premiatzea hiru hilabeteko epean taxutu dezan apirilaren 6ko 5/2010 Foru Legea garatzeko beharrezkoa den erregelamendua".

Iruñean, 2013ko maiatzaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hezkuntza-premia eta hirigintza-garapen berrietara egokitutako eskolatzepolitikak eta hezkuntza-dotazioak abian jar ditzan eta hezkuntzaren kalitatea ziurta dezan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2013ko maiatzaren 24an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hezkuntza-premia eta hirigintza-garapen berrietara egokitutako eskolatzepolitikak eta hezkuntza-dotazioak abian jar ditzan eta hezkuntzaren kalitatea ziurta dezan".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hezkuntza-premia eta hirigintza-garapen berrietara egokitutako eskolatzepolitikak eta hezkuntza-dotazioak abian jar ditzan eta hezkuntzaren kalitate-maila bera ziurta dezan ikastetxe guztietan, hezkuntza-kalitatearen eskakizunei erantzun diezaieten, haien kokalekua edozein dela ere".

Iruñean, 2013ko maiatzaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da negoziazio prozesu bat has dezan Nafarroako Administrazio Publikoen Negoziazio Mahai Orokorreko sindikatuekin, sektore publikoko langileei ordaintze aldera 2012ko abenduan beren nominetatik kendutako lansari-zatia.

MOZIOA ERRETIRATZEA

Legebiltzarreko Osoko Bilkurak, 2013ko maiatzaren 24an egindako bileran, adierazi zuen jakinaren gainean zegoela Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa erretiratu izanari dagokionez. Mozio horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen zen negoziazio prozesu bat has zezan Nafarroako Administrazio Publikoen Negoziazio Mahai Orokorreko sindikatuekin, sek-

tore publikoko langileei ordaintze aldera 2012ko abenduan beren nominetatik kendutako lansari-zatia. Mozio hori 2013ko apirilaren 23ko 42. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

F saila:
GALDERAK

Galdera, jakitekoa Nafarroako Gobernuak ba ote duen aurreikusita ekintzaren bat, Lekunberriko zabortegi zaharraren inguruan euriteek eragindako kaltea arintzeko.

BERTAN BEHERA UTZITAKO GALDERA

Legebiltzarrak, 2013ko maiatzaren 23an eginko Osoko Bilkuran, bertan behera utzi zuen, galdetzailea ez egoteagatik, Víctor Rubio Martínez jaunak aurkezturiko galdera, jakitekoa Nafarroako Gobernuak ba ote duen aurreikusita ekintzaren bat Lekunberriko zabortegi zaharraren inguruan euriteek eragindako kaltea arintzeko.

Galdera hori 2013ko maiatzaren 6ko 46. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, Nafarroako Zirkuitura jende gehiago joan dadin sustatzeko neurriei buruzkoa.

GALDERA ERRETIRATZEA

Legebiltzarreko Osoko Bilkurak, 2013ko maiatzaren 23an egindako bileran, adierazi zuen jakinaren gainean zegoela Amaya Zarranz Errea andreak aurkezturiko galdera, Nafarroako Zirkuitura jende gehiago joan dadin sustatzeko neurriei

buruzkoa, erretiratu izanari zegokionez. Galdera hori 2013ko maiatzaren 6ko 46. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

